# Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

## Ikasturtea: 2014/2015

## Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

Oinarrizko dimentsioa: **IKTen erabilera**

Ikasketa Planean adierazitakoa: Une bakoitzean eskura dauden IKTak trebetasunez aplikatzea eta erabiltzea, tituluaren edukiekin lotutako informazioa lortzeko eta informazio hori tratatzeko.

**1. maila: IKTen erabilera gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua**

## 1. MENDERATZE MAILA

Posta elektronikoa, datu baseak eta Interneteko tresnak oinarrizko mailan erabiltzea.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| **Irakasgaiei buruzko datu esanguratsuen basea erabiltzen du.** | Informazio egokiak bilatu eta erabiltzen ditu. |
| **Posta elektronikoa erabiltzen du.** | Lankidetza lana kudeatzen du tresna horren bidez. |
| **Ikus-entzunezko edukien eta diapositiben programak erabiltzen ditu.** | Komunikaziorako egokiak diren diapositiba dokumentu erakargarriak sortzen ditu. |
| **Interneteko tresnak kudeatzen ditu: blogak eta wikiak.** | Sare sozialetan sartzeko erabiltzen ditu. |

## 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Zuzenbide Zibila (gaitasuna koordinatzen du), Sozietateen Zuzenbidea, Lan Zuzenbidea, Ekonomia Politikoa, Lan Arloko Psikologia eta Lan Arloko Soziologia.

## 4. ZEREGINAK

- Datu baseak bilatzea eta erabiltzea; blogak, wikiak eta posta elektronikoa erabiltzea, egitea eta mantentzea; eta ikus-entzunezko ekipoak eta materialak erabiltzea lanak ikasgelan ahoz aurkeztean.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

Zuzenbide Zibila irakasgaiak (gaitasuna koordinatzen du) kontuan hartzen du gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Zuzenbide Zibila:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da: gai bati buruzko informazioa bilatzea Aranzadi datu basean; ikasturteko materialak 10 ikaskiderekin partekatzea posta elektronikoaren bidez; ahozko aurkezpen bat egitea ikus-entzunezko materialen laguntzarekin; blog bat irekitzea eta ikasturtearekin lotutako edukiez betetzea, eta astero eguneratzea.

Gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 20 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da: aurretik planteatutako problema bat ebaztea, jardun gidan oinarrituta; taldean informazio juridiko-ekonomikoa bilatuz hainbat iturritan (datu base juridikoak, Internet, liburutegi katalogoa);

lortutako informazioa posta elektroniko eta/edo sare sozialen bidez kudeatzea eta partekatzea; Moodle plataforma erabiltzea ikasturteko materiala eskuratzeko eta/edo lan memoriak entregatzeko.

Gaitasunaren ebaluazioa nota osoaren % 10 da, eta 2,5 puntu baloratzen dira adierazle bakoitzeko.

Ekonomia Politikoa:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da: ikasleak lankidetza talde txikitan banatzea, alor ekonomikoan ikerketa txiki bat egiteko, datu base egokietara joz; kudeatzaile bibliografikoak (RefWorks) erabiltzea; ELGAren datu basea erabiltzea, datu horiek Excelen prestatzea, taula eta grafikoen bidez; eta ikerketaren emaitza jendaurrean aurkeztea informatika baliabideak erabilita.

Gaitasunaren ebaluazioak % 30eko pisua du aipatutako ikerlanari emandako amaierako kalifikazioan; kalifikazio horren barnean, % 30 IKTen erabilerari dagokio.

Lan Zuzenbidea, Lan Arloko Psikologia eta Lan Arloko Soziologia irakasgaiak nahita diseinatuta daude gaitasuna garatzeko, edo aukera ematen dute gaitasun horiek praktikan jartzeko.

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

# 2. maila: IKTen erabilera gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. MENDERATZE MAILA

Posta elektronikoa, datu baseak eta Interneteko tresnak maila ertainean erabiltzea.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| **Datu base egokiak hautatzen ditu.** | Ondorioak ateratzen ditu aldagaiak identifikatuz eta konparatuz. |
| **Posta elektronikoa erabiltzen du helburu instituzionaletarako.** | Modu eraginkorrean izapidetzen du informazio instituzionala. |
| **SPSS informatika programa erabiltzen du.** | Datuak sartu eta eragiketak egoki egiten ditu, emaitzak lortzeko eta grafikoki ilustratzeko. |
| **Dokumentuak sortzen ditu bere ordenagailutik.** | Irakurtzeko dokumentu erakargarriak aurkezten ditu, orri oin, aipu bibliografiko, taula eta beste elementu grafiko batzuekin. |

## 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak (gaitasuna koordinatzen du); Enpresen Kudeaketa I; Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea; eta Teknika Kualitatiboak.

Ez dago gaitasuna kalifikatu ez arren hura garatzeko lagungarria den beste irakasgairik.

## 4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Gai teorikoak edo praktikoak eta txostenak lantzea eta aurkeztea, bakarka eta taldean, programa egokiak erabilita. Kontuan izango dira, lanaren azalpenean, dokumentuaren formatua eta tamaina; eta aurkezpenaren elaborazioan, tituluari dagokion terminologiaren erabilera eta informazioa laburtzeko eta egokitzeko lana.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

**Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak** (gaitasuna koordinatzen du).

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu ikasturtearen hasieran argitaratzen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, txosten soziolaboralak egin behar dira, planteatutako problemari dagozkion datuak identifikatuz eta datu estatistiko adierazgarrienak grafikoki adieraziz.

Adierazleak era proportzionalean ebaluatzen dira, eta gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren kalifikazio osoaren % 20 da.

**Teknika kualitatiboak:**

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu ikasturtearen hasieran argitaratzen den ebaluazio sistemaren bidez.
Gaitasuna praktiken eta defentsaren bidez ebaluatzen da, programa egokiak erabilita.
Adierazleak era proportzionalean ebaluatzen dira. Gaitasunak irakasgaiaren notan duen pisu globala % 20koa da.

**Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia:**

2. eta 4. adierazleak ebaluatzea (posta elektronikoa erabiltzen du helburu instituzionalekin, eta dokumentuak sortzen ditu bere ordenagailutik), ikasturtearen hasieran argitaratzen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, kasu praktikoak aztertzen eta aurkezten dira, eta gai bat lantzen eta aurkezten da programa egokiak erabilita (Word eta Power-Point, edo antzekoak).

Adierazleak era proportzionalean ebaluatzen dira, eta gaitasunaren ebaluazioa irakasgaiaren kalifikazio osoaren % 10 da.

**Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I:**

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu, 3. adierazlea izan ezik (SPSS informatika programa erabiltzen du), ikasturtearen hasieran ezagutzera ematen den ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna zeregin hauen bidez ebaluatzen da:

- Blog bat sortzea Blogger bidez, honako eginkizun hauetarako:
    - Test motako azterketak argitaratzea
    - Doktrina eta jurisprudentzia bilduma argitaratzea
    - Irakasleak proposatutako ariketa praktikoak ebaztea
- Google Drive:
    - Dokumentuak sortzea
    - Informazioa sistematizatzea

  - Lankidetza lana
  - Inprimakiak egitea
- PREZI:
  - Teoriaren laburpen esplikatiboei buruzko lanak azaltzeko.
- Google Scholar ....datu base bibliografikoak
- UPV/EHUko Liburutegiko datu baseak (Aranzadi westlaw...)

Ebaluazioan, adierazle bakoitzaren balorazioa honako hau da:

  - Datu base egokiak hautatzea % 20
  - Posta elektronikoa helburu instituzionalekin erabiltzen du % 10
  - Dokumentuak sortzen ditu bere ordenagailutik % 20

Gaitasunak irakasgaiaren amaierako notan duen balorazioa % 50ekoa da.

Gizarte Ikerketarako Teknika Kuantitatiboak (gaitasuna koordinatzen du), Enpresen Kudeaketa I, Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea eta Teknika Kualitatiboak irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

# 3. maila: IKTen erabilera gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. MENDERATZE MAILA

Interneteko tresnak eta testuak eta aurkezpenak editatzeko programak erabiltzen ditu, maila ertain-aurreratuan.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| **Dokumentuak sortzen ditu ordenagailutik, testua, grafikoak, taulak... konbinatuta.** | Sortutako dokumentuak azpimarragarriak dira testua, taulak eta grafikoak konbinatzeko duten trebetasunagatik. Elementu horiek dokumentua argiagoa egiten dute, eta balioa eransten diote edukiari. |
| **Hainbat motatako dokumentuen (ikus-entzunezkoak, testuak, grafikoak eta kalkulu orriak) formatua konfiguratzen du.** | Aurkeztutako dokumentuen formatuak ezin hobeki betetzen ditu irakasleak ezarritako arauak, eta balio erantsia eta publikoarentzat erakargarritasuna ematen dizkio dokumentuari. |
| **Ikus-entzunezko edukiak eta diapositibak dituzten programak erabiltzen ditu bere lanak aurkezteko (adib.: Power Point, Prezi).** | Aurkezpen azpimarragarriak egiten ditu, aurkezpenetarako erakargarriak diren ikus-entzunezko programen erabilera egokiagatik eta, beharrezkoa denean, bideo esplikatiboekin konbinatzeko gaitasunagatik. |
| **Interneteko tresnak kudeatzen ditu: hala nola Moodle.** | Irakasgaiaren jarraipena egiteko eta informazioa partekatzeko, plataforma birtualak erabiltzen ditu era eraginkorrean (Moodle). |

Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

## 3. IRAKASGAIAK

Enpresen Antolakuntza II (gaitasuna koordinatzen du): Antolakuntza eta Metodoak (arduraduna); Lan Harremanen Teoria eta Egitura; Lan Ekonomia.

## 4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Gai teorikoak eta kasu praktikoak lantzea eta aurkeztea/defendatzea, bakarka eta taldean, informatika programa egokiak erabilita eta kontuan izanik irakasleak ikasturtearen hasieran argitaratutako ebaluazio matrizea.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

Enpresen Kudeaketa II: Antolakuntza eta Metodoak, eta Lan Ekonomia irakasgaiek gaitasuna ebaluatzen dute ebaluazio errubrika baten bidez. Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

### Enpresen Kudeaketa II

Gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu, oinarri hartuta ikasturte hasieran Moodle plataforman argitaratutako zeregin bakoitzaren ebaluazio matrizea. Zereginen ahozko eta idatzizko euskarriak eta euskarri birtuala oinarri hartuta ebaluatzen da. Zereginak bi motatakoak dira: alde batetik, irakasgaiaren gai teoriko bat lantzea eta aurkeztea/defendatzea (2 puntu guztira amaierako notari dagokionez); bestetik, 6 kasu praktiko ebaztea eta aurkeztea/defendatzea (3 puntu guztira amaierako notari dagokionez).

**Lan Ekonomia**

Gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu proiektuaren aurkezpena oinarri hartuta (kalifikazioaren % 40), notaren 1/4ren haztapenarekin.

Lan Harremanen Teoria eta Egitura irakasgaia nahita diseinatuta dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.

Irakasgaiak gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

# 4. maila: IKTen erabilera gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. MENDERATZE MAILA

Datu baseak, Interneteko tresnak eta testuak eta aurkezpenak editatzeko programak erabiltzen ditu, maila aurreratuan.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| **Datu baseak erabiltzen ditu.** | Bere lanak egitean, gai da datu base egokiak aurkitu eta erabiltzeko, bai UPV/EHUk kontratatutako biltegietan eskura dauden datu baseak, bai Interneten eskura daitezkeenak. |
| **Lan dokumentuetan, testua, grafikoak, kalkulu orriak, taulak... konbinatzen ditu.** | Ikasleek sortutako dokumentuek testua, taulak edo grafikoak dituzte, eta balio erantsia ematen dio horrek edukiari. |
| **Ikus-entzunezko edukia duten programak erabiltzen ditu, lanen ahozko azalpenerako euskarri gisa.** | Ikus-entzunezko programak erabiltzen ditu bere aurkezpenetan (ppt, prezi, real player, etab.), komunikazioaren euskarri gisa eta aurkezpenari erakargarritasuna emateko. |
| **Interneteko tresnak kudeatzen ditu.** | Interneteko tresna generalistak erabili ohi ditu, erraz (sare sozialak), hala nola foroak edo blogak, eta unibertsitateko tresnak/plataformak (Moodle edo Gaur), irakasgaiaren jarraipen eraginkorra egin eta informazioa partekatzeko. |
| **Posta elektronikoa erabiltzen du.** | Posta elektronikoa erabili ohi du bere lan akademikoetan, baliabidea menderatzen duela erakutsiz (erantzunaren azkartasuna, mezuaren egitura, manera onak, ortografia eta sintaxia, edozein motatako fitxategia eransteko erraztasuna). |

## 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Enpresen Kudeaketa III irakasgaiak gaitasun hau ebaluatzen du.

## 4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Enpresa baterako plan estrategiko proiektu bat idaztea eta ahoz azaltzea, bakarka eta taldeka, informatika programa egokiak erabilita eta UPV/EHUko ikasleentzako informazio baliabideetara joz. Proiektuaren amaierako azalpenean, ikus-entzunezko IKT baliabideak erabiliko dira.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

Enpresen Kudeaketa III irakasgaiak kontuan hartzen du gaitasuna bere ebaluazio protokoloan, eta aintzat hartzen du ikasleak ebaluatzeko unean.

Gaitasunaren adierazleak ebaluatzen ditu, oinarri hartuta ikasturte hasieran Moodle plataforman argitaratutako zeregin bakoitzaren ebaluazio matrizeak (errubrika). Honako hauek ebaluatzen dira: talde lana (kalifikazioaren % 15), txosten idatzi bat idaztea (kalifikazioaren % 15), ahozko aurkezpenak (kalifikazioaren % 15), lan pertsonala (kalifikazioaren % 25) eta eskuratutako ezagutzen maila (kalifikazioaren % 30). Irakasgaiaren edukiak eta jarduerak Moodle plataformatik kudeatzen dira. IKTen erabilera gaitasun orokor bat da, beharrezkoa eraginkortasunez garatzeko aurretik aipatutako gaitasun guztiak. Kontuan hartzen da espreski errubriketan (talde lana, txosten idatzia lantzea eta ahozko azalpena), eta ezinbesteko baliabide bat da lan pertsonalaren eta ezagutzen dimentsioak gainditzeko, gaitasun instrumental bat delako.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, komunikazio idatziari dagokionez menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.

2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.

3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

# GRAL 4. maila: IKTen erabilera gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. 4. menderatze maila

Era autonomoan eta trebetasunez erabiltzen ditu une bakoitzean eskura dauden IKT baliabideak, GRALari buruzko informazioa lortu eta informazio hori tratatzeko.

## 2. Ikaskuntza adierazleak eta emaitzak

| ADIERAZLEAK | IKASKUNTZA EMAITZAK |
|---|---|
| **Hainbat arlo tematikotako edukiak (datu estatistikoak) dituzten datu baseak erabiltzen ditu.** | Edozein motatako datu baseak aurkitzen eta erabiltzen ditu, trebetasunez. |
| **Dokumentuak sortzen ditu ordenagailutik, testua, grafikoak, taulak... konbinatuta.** | Sortutako dokumentuak azpimarragarriak dira testua, taulak eta grafikoak konbinatzeko duten trebetasunagatik. Elementu horiek dokumentua argiagoa egiten dute, eta balioa eransten diote edukiari. |
| **Hainbat motatako dokumentuen (ikus-entzunezkoak, testuak, grafikoak eta kalkulu orriak) formatua konfiguratzen du.** | Aurkeztutako dokumentuen formatuak ezin hobeki betetzen ditu irakasleak ezarritako arauak, eta balio erantsia eta publikoarentzat erakargarritasuna ematen dizkio dokumentuari. |
| **Ikus-entzunezko edukiak eta diapositibak dituzten programak erabiltzen ditu bere lanak aurkezteko (adib.: Power Point).** | Aurkezpen azpimarragarriak egiten ditu, aurkezpenetarako erakargarriak diren ikus-entzunezko programen erabilera egokiagatik eta, beharrezkoa denean, bideo esplikatiboekin konbinatzeko gaitasunagatik. |
| **Interneteko tresnak kudeatzen ditu: blogak, wikipedia, foroak, moodle, ekasi.** | GRALa egitean, informazioa partekatu eta dokumentuak eta/edo aurkezpenak sortzen ditu; Interneteko tresnak erabiltzen ditu, erraz (foroak, wikipediak, blogak), baita unibertsitate tresnak/plataformak ere (Moodle edo |

| | |
|---|---|
| | Ekasi). |
| **Posta elektronikoa erabiltzen du.** | Posta elektronikoa erabiltzen du trebetasunez: azkar erantzuten du; edozein motatako fitxategiak erraz eransten ditu; formatua eta tonua egoki erabiltzen ditu. |

**3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK**

Gradu Amaierako Lana.

**4. Zereginak**

Bilaketa bibliografikoak; Komunikazioa tutorearekin posta elektronikoaren bidez; Testu eta grafiko prozesadoreak erabiltzea (Word, Excel, etab.) GRAL memoria idazteko; PPT aurkezpena epaimahaiaren aurrean egin beharreko GRALaren defentsarako.

**5. Ebaluazio sistema:**

Adierazleak GRALei buruzko arautegian ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira. Irizpide horiek publikoak dira. GRALaren faseak edo zereginak honela haztatzen dira:

Tutoreak GRAL prozesua baloratzeko eginiko txantiloia: % 40

GRALaren amaierako memoriaren edukia eta forma: % 30

GRALaren aurkezpena epaimahaiaren aurrean: % 30